

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2012ko azaroaren 1a. IX. urtea. 2.426. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Orain mila urteko aztarnak daude Bidegoiango San Pedroburu eremuan

Zehazten Zerbitzu Kulturalak enpresak iaz eta aurten eginiko indusketek X. mende inguruko eliza baten horma, haur baten hilobia eta zeramika zatiak azaleratu dituzte

Iosu Etxezarraga indusketen arduradunak azaldu duenez, Erdi Aroan bizi zen jendeari buruz dagoen informazio apurra zabaltzen lagundu dezake aztarnategiak ◦4



San Pedroburu eremua (goian) eta bertan aurkitutako X. mende inguruko haur baten hilobia. HITZA

### Zaldibiako Mondejo Lehiaketa irabazi du Morea amezketarrak

Ardiki Egunean ere egiten den Aralarko Gaztaren Lehiaketan Karlos Beloki bedaiorak bigarren postua eskuratu du ◦5

### Parekidetasuna ikasgai, Anoeta eta Irurako ikastoletan

Hezkidetzak ikastaro bat egin dute ikasle, irakasle eta gurasoen parte hartzearekin ◦3

### 'Miedo a perderos' liburua atera du Luis Elizetxeak

Bigarren eleberria kaleratu du Tolosako Hirukide ikastetxeko irakasleak ◦2

### Jaunarena eta Barriolaren partidak, bihar, Leitzan

Lau t'erdiko Pilota Txapelketako neurketak 20:00etan hasiko dira ◦3

## Ibarrako Udalak hutsik dauden etxeen jabeak alokatzera animatu nahi ditu

2013 urterako zerga eta tasak arautu berri ditu ezohiko batzarrean; orokorrean zergak %3,2 igoko dira, hutsik dauden etxebizitzetzi %50eko errekgua ezarriko die eta hondakinen zerga ez dute igoko ◦7

**FUNERARIA  
VASCONGADA  
EHORZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



# Azkarregi heldu bihurtu beharraz ari da Elizetxea 'Miedo a perders' liburuan

Hirukide ikastetxeko irakasleak bere bigarren eleberria aurkeztu berri du ikasle, ikasle ohi eta lankideen aurrean

## Itzea Urkizu

Familiako gorabeherak hala behartuta heldutasunera azkarregi iritsi behar den hamasei urteko nerabea da, Luis Elizetxeak, herenegun, kultur etxean, aurkeztu zuen *Miedo a perders* eleberraren protagonista. «Bere gurasoen harremana gainbehera doala ikusten du mutikoak, eta ordura arte izandako bizitza perfektu edo ideal hori pikutara doala», azaldu zuen Elizetxeak.

Horrela, beraz, arazo horren hariari tiraz, hamaika eta bat kontu ezagutuko ditu mutikoak, eta baita jende berria ere: «Hitz batean esanda, nahi edo behar baino lehenago hasiko da helduroan sartzen».

Aurkezpen berezia egin zuen irakasleak, eskerrak ematen hasita: «Ez nuen pentsatuko sei urte beranduago beste liburu bat aurkeztu ariko nintzenik». Horrela, eta anzterki munduan duen esperientzia probestuz, Eduardo Mendoza, Carlos Ruiz Zafón, Arturo Pérez Reverte nahiz Javier Mariásen izenak aipatu zituen, bere idazle kutitun gisa. Idazle moduan haiek bezain entzutetsua ez den arren, esmokina eta betaurrekoak jantzita aurkeztu zuen liburu-



Elizetxearen ikasle, ikasle ohi nahiz lankideak bertaratu ziren kultur etxeko aurkezpena. I. URKIZU

rua, idazle handien azalean sartuta.

*Miedo a perders* nobelako istorioa, hainbat errealitatekin aldera daiteke, eta idazleak berak azaldu zuen. «Ikasleekin bizi izandako hainbat egoerez osatu» due-la liburua: «Gaur egun kalean, gizar-tean, aurki ditzakegun pertsonaia-k dira liburuan agertzen direnak. Sarri iruditzen zait, egungo gaztetxoek ez dutela konfiantzarik ezerekin, eta hori oina-

rrari hartuta zerbait egin nahi izan du eleberrian».

Modu honetara, aurkezpena bertaratu zirentzat irakurtzeko liburu atsegina izango dela nabarmendu zuen: «Egokiena gazteek eta helduek gustora irakurtzea litzateke».

Luis Elizetxeak duela sei urte argitaratu zuen bere lehen eleberria, *Bajo el nivel del mar*. Bere irakasle izaerak gazteekin estu lotutako gaiak jorraztera damara

Luis Elizetxea, eta lehen nobela hartan ere gazteak izan zituen pertsonaia nagusi; Herbeereetako auzolandege bateko bi gazte-aren arteko maitasun istorioa kontatu zuen, intriga kutsuarekin.

Honez gain, ordea, antzerkiaren generoa ere jorratu izan du Elizetxeak, eta besteak beste, *Hiru biren prezioan* antzezlanaren egilea da; supermerkatu bateko hirur langile dira pertsonaia nabarmenenak.

## Espedizio aitzindariak hitzaldia, Bidaiarien Txokoan

Azarorako egitarau bete osatu dute Antxon Bandres Bidaiarien Txokoko arduradunek

### I. Urkizu

1974 eta 1975. urteetan Euskal Herri-rik abiatutako espedizio aitzindariak hipide izango ditu, datorren asteazkenean, Angel Fernandezek. Antxon Bandres Bidaiarien Txokoak egitarau oparoa prestatu du hilabete honetarako, eta *Nouristan* '75 emanaldiarekin hasiko dira, datorren asteazkenean, 19:30ean.

Diapositibak, dokumentuak, prentsako zatiak eta antzekoak erabiliko ditu Fernandezek, gaztelaniaz eskainiko duen saioan. Besteak beste, Txomin Uriartek Everestera egindako Tximist espedizioa eta Antxon Bandres Gipuzkoako beste eskiatzaile batzuekin Laponiara burututako zeharkaldia ezagutzen ditu, eta baita Fernandezek berak Bandresekin Anafingstanera egindako bidaia ere.

Bidaiarien Txokoko arduradunek azaldu dutenez, negu osorako egitaraua prestatzen ari dira, espedizio hauek guztiak aurkete-ko.

### Mendiaz eta hizkuntzez

Angel Fernandezek hitzaldiaz gain, Bidaiarien Txokoan beste bi hitzordu ere zehaztu dituzte.

Horrela, azaroaren 21ean, Iraitz Ezkergain ibartarrak goi mendi gidari izateko beharrezkoak diren ikastaroak, praktikak eta bizimodu aldaletako izango ditu hizpide. Honi guztiari, berak ekoiztutako bideo eta argazkiek lagunduko diote.

Azkenik, azaroaren 28an, hiztegi baten aurkezpena egingo dute Errotako Bidaiarien Txokoan: Euskara- Suomiera- Euskara. Suomitar elkar-tea 2000. urtean sortu zuten, eta euskal eta finlandiar kulturen arteko zubi lanak egiten dituzte. Elkarteko kideek euskara-suomiera-euskara hiztegi garatu du urte hauean guztietan zehar, bazkideen laguntzaz, eta besteak beste, finlandiarren eta euskararen txikitetasuna eta zahartasuna azpimarratu dituzte.

Aipatzekoa da, azken hitzaldia izan zuen arrakasta dela eta, aurrerantzean sarrera mugatu beharko dutela Bidaiarien Txokoa. Beraz, ikusleei garaiz bertaraztea gomendatu nahi diete antolatzaileek.

## → Laburrak

### Herriko hildakoen alde meza, bihar

**ERLUIJOA** > Bihar, meza ospatuko dute San Blas hilerriko kaperan, herrian zendutako guztien alde. 11:00etan hasiko da ekitaldia.

### 'Lo imposible' ikusteko sarrerren salmenta

**KULTURA** > *Lo Imposible* filma ikusteko sarrerren salmenta arautu egin dute. Horrela, gaur eta bihar 16:30etik aurrera, bonodunei banatuko dizkiete sarrerak. Larunbatean, berriz, 12:00etatik aurrera, sarrera arruntak erosteko aukera izango da Leidor aretoko leihatilan bertan.

### Gure Kaiola elkarteko babarrun lehiaketa

**GIZARTEA** > Gure Kaiola elkartearen XXVI. Babarrun lehiaketa datorren azaroaren 18an izango da, eta parte hartu nahi duen edonork, azaroaren 9a izango du izena emateko azken eguna. 19:30etik 21:00etara bitarte, elkartearen egoitzan bertan eman daiteke izena, eta baita [aiglesias@hirukide.org](mailto:aiglesias@hirukide.org) helbidera idatzita ere. Azkenik, 661 05 60 80 edo 607 67 27 09 telefono zenbakietara deituta ere eman daiteke izena.

### ↓ Iragarki laburrak

#### LAN ESKAERAK

**Harakina.** Harategietan bilgetik ekartzen den ganadua zatitzeko, harakinak bere burua eskaintzen du. Interesa duen edonork, dei dezala honako telefono zenbakira: 635 74 15 64.

## Musika sakratua, profanoa eta polifonia, gaur, abesbatzekin

### I. Urkizu

Gaur hasiko da 2012ko Tolosako Abesbatza Lehiaketa, eta lehen emanaldia 11:30ean izango da, Santa Klara elizan; musika sakratuko saileko emanaldia eskainiko dute Indonesiako, Erresuma Batuko, Filipinetako eta Letoniako abesbatzek.

16:00etan, berriz, polifonia saileko lehen emanaldia izango da Leidor aretoan, irlandar, indonesiar eta ukrainiarrekin.

Azkenik, 19:30ean, folklore musikaren sailari dagokion lehenengo saioa izango da Leidor aretoan, goizeko abesbatzetako zenbaiten eskutik.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Parekidetasunean oinarritutako hezkuntza, Iruran eta Anoetan

Ikastoletako ikasle, irakasle eta gurasoekin egin dituzte saioak, Berdinbidea-ren eta udalen laguntzarekin

## Asier Imaz

Engungo gizartearen gaitzetako bati aurre egiteko, hezkuntzaren aldeko apustua egin dute Anoeta eta Irurako ikastolan. Izan ere, ikasle, irakasle eta gurasoek hezikidetzako ikastaro batean hartu dute parte, irizpide sexistak gaindituz, parekidetasunean oinarritutako hezkuntza lantzeko. Ikastoleatik azaldu dutenez, jarraitzea izango duen egitasmoa izango da.

Anoeta eta Irurako ikastolek, bi herriotako udalekin batera antolatuta zizuten hezikidetzako lantzeko saioak, urriaren 8tik 23ra. Horretarako, Berdinbidea erakundearen diru-laguntza jaso zuten. Berdinbidea Eudel, Emakunde eta Foru Aldundiaz osaturiko erakundea da.

Familietan, eskoletan, lagunartean... generoaren araberako estereotipoak mantenduz hezten jarraitzen dela diote egitasmoaren antolatzaileek: «Hezikidetzan hezea irizpide sexistak gaindituz

parekidetasunean oinarritutako hezkuntza lantzea da». Anoeta eta Irurako ikastoletan, adinaren arabera gai ezberdinak aztertutuzte, horrela neska eta mutilen artean egon daitezkeen jarrera sexistei aurre egiteko asmoarekin.

Ikastaroak Urtxintxa Eskolako adituek eman dituzte aurrera LH5; LH6; DBH3 eta DBH4ko ikasleekin, eta talde bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, hainbat gai jorratu dira, betiere, metodologia parte-hartzailea eta dinamikoa erabiliz.

Ikasle talde bakoitzarekin lau orduko tailerra egin zuten, irakasleekin hiru saio eta gurasoekin saio bat. Azken kasu honetan, hau da, gurasoekin, hasieran hiru saio egitea aurreikusituz, baina partaide kopuru eskasagatik, azkenean saio bakarra egin zuten.

Egitasmoaren antolatzaileen esanetan, ikastaroei jarraitzea izango dute, «hezkuntzan gai honen segida izan dezan». Plangintza bukatuta, ebaluatu eta hurrengo ikasturterako planak zehaztuko dituzte. Udaletatik esan dutenez, «azpimarratzekoa da ikastoletako jarrera ezinhobearen, parekidetasun gizarte baterantz egiteko bidean elkarlana sustatzea garrantzitsua baita».



Anoeta eta Irurako ikastoletako ikasleak parekidetasun praktikak egiten. HITZA

## ↓ Landutakoa

### IRAKASLEEKIN

Ziklo bakoitzarekin lanaketa ezberbera egin zen; oinarri teoriakoak berdinak izan arren, baliabideak adin ezberdinetara egokitu zituzten, horretarako tresnak eskainiz.

### GURASOekin

Hezikidetzako zer den argitzeko lanaketa egin zuten lehenik; ba-

liabide pedagogikoak eman zitzaizkien.

### IKASLEEKIN

■ **LH5. maila.** Indarkeriari aurre eginez bizikidetzako landu zuten, harreman afektibo osoak eta indarkeria sexistak aztertuz.  
■ **LH6. maila:** Etxeko ardurak eta familiaren ardurak partekatu: Etxeko lanen balorazio positiboa, lanak praktikatzeko eta

etxeko lanen arduri buruz hausnartzen aritu ziren.

■ **DBH3. maila:** Indarkeria sexistak: Sexu-genero sistema eta jendarteratze prozesua, harreman afektibo osoak eta indarkeria sexistak aztertuz.  
■ **DBH4. maila:** Lanbide orientazio ez sexistak: Sexu-genero sistema eta jendarteratze prozesua, emakumeak eta lan mundua. «Nola aldatu?» galderari erantzuten saiatu ziren.

## → Laburrak

### Elkartasun zozketako lehen saria ibarrara

■ **IBARRA** ▶ Elkartasun zozketako txartelak Euskal Herri guztiaren saltzen dira, eta lehen saria, furgoneta izan ohi da. Aurten, 90.067 izan da zenbaki saritua, eta ibarrako jaietan saldu zen, hain zuzen ere, euskal preso eta iheslariaren eskubideen aldeko afarian. Sariaren irabazleak jakitun dira dagoeneko.

### Denbora bankuaren aurkezpena eta solasaldia

■ **ASTEASU** ▶ Aiztondo denbora bankua aurkeztuko dute azaroaren 8an Asteasuko udaletxean, 19:30ean. Ondoren, guztien artean solasaldia egingo dute. Herritar guztiak gonbidatu dituzte ekimenera.

### Lamiategiko etxebizitzak erosteko aukera

■ **ASTEASU** ▶ Lamiategiko eremu, herri gunean, 32 etxebizitzak eraiki nahi ditu udalak. Horretarako herritarrek hitz egin ostean, erosleek zerrenda osatzen jarraitzen du udalak. Libreak izango diren arren, tasatuaren prezioan saldu nahi dituzte. Informazio gehiago nahi duenak, udaletxera joan edo 943 69 19 07 zenbakira deitu behar du; [www.asteasu.net](http://www.asteasu.net) helbidean ere zintzilikaturik dago informazio guztia.

### 'Brave' filma ikusteko bigarren aukera

■ **VILLABONA** ▶ *Brave* haurrentzako filma ikusteko aukera egongo da berriro ere Gurean, igandean, 17:00etan. Helduentzat, *Barrura begiratzeko leihoak* jarriko dute ikusgai, igandean 19:30ean eta astelehenean, 21:00etan.

## Lau t'erdiko Txapelketako partidak jokatuko dira Leitzan

Barriolak eta Olazabalek igandean jokatuko dituzte euren partidak, lehen eta bigarren mailan

### A. Imaz

Lau t'erdiko Txapelketako bi partida jokatuko dira Leitzan, ostiralean, 20:00etatik aurrera. Lehena, bigarren mailakoa izango da, eta bigarrena, lehen mailakoa. Pilota jaialdian bi leitzar ariko dira txapelketako puntu bat irabazi nahian. Lehen partidaren Jon Jaunarena, Untoriaren aurka, eta bigarrenean, Oinatz Bengoetxea, Xalaren aurka.

Abel Barriolak, bere aldetik, li-

gaxkako bigarren partida Bilbon jokatuko du azaroaren 4ean, igandean. Leitzararren aurkaria Retergi Bi izango da. Pilota jaialdia 17:00etan hasiko da, eta Barriolaren partida jaialdiko bigarrena izango da. Pilota aukeraketa atzo egin zuten bi pilotariek, eta leitzar materiallean aitzakiarik ez dagoela esan zuten: «Julenen pilotak politikak dira, bat baxuagoa den arren. Antzeko jokoa egiten dugu, eta ia irabazi banion ere, ez zen erraza izan, atzetik joan bainintzen. Partida gogorra izango dela uste dut». Ligaxkako lehen partida, Berasaluzeren aurka galdu zuen Abel Barriolak, 22-11.

Mikel Olazabal aresoarrak, bigarren mailan, azaroaren 4ean jokatuko du bere partida, Rico IV.aren aurka.

Ligaxka aurrera doan neurrian, finalerdietarako txartelak gero eta gertuago edo urrutiago dituzte pilotariek. Lehen mailako bi leitzarrek lehen partida galdu ostean, asteburu honetako irabazi beharrean aurkitzen dira. Bigarren mailan, aldiz, Mikel Olazabalek jokatutako biak irabazi ditu, eta lehen postuan dago. Jon Jaunarena hirugarren aurkitzen da bere multzoan, partida bat galdua, eta bestea irabazita.

**KEY-LAN**  
Sarrailgintza

Nalarrua erorb. 13 behean - TOLOSA  
Mag.: 670 41 79 22  
Tel./Fax: 943 65 03 13

Bidegoiango San Pedroburu eremuan garrantzia handia izan dezaketen aurkikuntzak egin dituzte. Hamargarren mendeko eliza baten aztarnak daude eta garai horretako herrixka bat ere egon daiteke.

# Orain mila urteko herrixkaren bila

Imanol Garcia Landa Bidegoian

**S**an Pedroburu muinoa Bidegoianen dago, Beizamara bidean, Santa Ageda auzotik gertu. Bertan aurkikuntza garrantzitsuak egin dituzte Zehazten Zerbitzu Kulturalak enpresako kideek: gutxienez mila urte izan ditzakeen eliza baten horma, eta haur baten hilobia eta zeramika zatia, azken hauek X. mende ingurukoak.

Iosu Etxezarraga Zehazten enpresako kidea da eta indusketa lanen ardura izan du. Proiektu honek beste ildo batzuekin lotura duela azaldu du. Doktoradutza proiektu bat egiten ari da Etxezarraga, Erdi Aroko Gipuzkoan erlijotasunaren inguruan. Bestalde, Deustuko Unibertsitateko lantalde batekin elkarlanean dabil eta Gipuzkoako antzinako biztanleriaren inguruan ikerketa batzuk egin dituzte. «Bi ildoak uztartzea pentsatu nuen», azaldu du Etxezarragak. «Parrokiak Goi Erdi Aroan biztanleriaren bizkarrezur moduan zuten papera ikusita Gipuzkoako erlijotasuna ikertuko zuen ikerketa bat egitea zegoen, alde batetik, eta, bestetik, biztanleria sistemaren aldaketak aztertuko zituen». Aurretik egin diren beste lan batzuk ikusita, ermita asko, dokumentuak dauden garaia baino lehen, hau da, Behe Erdi Aro baino lehen, parrokiak izan zirela dio Etxezarragak: «Komunitate batek beraien haurrak bataiatzen zituen, beraien hildakoak lurperatzen zituen... Ermita horietan orain 800 urteko hilibiak aurkitu direla izaten da horren frog».

Etxezarragak abian jarri zuen ikerketa bat, ermitak dauden edo izan diren lekuak aztertzeko. Orain bi urte hasi zen miaketa kanpainarekin Azpeitia inguruan, eta iaz hasi zen Errezil, Bidegoian eta Albiztur inguruan. «Iaz konturatu ginen, oraindik



San Pedroburun aurkitutako horma ziur aski eliza batena da. HITZA

zutik dauden ermita asko XVI. mendean handitu egin zirela. Beraz, handitu ziren unean, inguruan izan zezaketen hilibiak elizaren barruan geratu dira. Gaur egun oso zaila da eliza baten barruan indusketa bat egitea, obra bat egin behar litzatekeelako». Beraz, garai batean ermitak zeuden lekuak eta egun zelaiak direnak begiratzea pentsatu zuten, leku horietan miaketa arkeologikoak eginez, aztarnategirik topatzea errazagoa izango ote zen ikusteko.

## San Pedroburu bisita


Planteamendu horretatik abiatuta, iaz Bidegoiango San Pedroburu, egun Elola bailaran dagoen ermita zegoela identifikatu zuen Etxezarragak, horrelako gai ei bu-

ruzko bibliografia erabiliz. Airetik hartutako argazkietan ikusten zen ere egestura batzuen aztarnak zeudela.

Zundaketa bat egin zuten, beraz, eta harlauz egindako hilibi bat aurkitu zuten, eta bertan haur baten aztarnak. «Hilibi mota hori erabiltzen da X. mendetik XIII. mendera arte, beraz, guretzat oso datu interesgarria izan zen, ikusi genuelako han zegoen ermita hori hilibiratzeko erabili zela», dio Etxezarragak. «Horrek esan nahi du eliza horrek eskubide eta pribilegio batzuk zituela, hau da, ermita horrek funtzionatzen zuela komunitate baten erdigu gisa. Beraz, ondorioztatu genuen, ziur aski San Pedroburun herrixka bat zegoela, orain mila bat urte».

Iazko zundaketa horretan zeramika zati bat aurkitu zuten. «Nahiko arraroa da, eta badakigu Gipuzkoan beste indusketa batean bakarrik topatu dutela horrelakoak. Eta datazioa, gutxi gorabehera, X. mende edo XI. mendekoa da», zehaztu du Etxezarragak. «Beraz, hilibiari eta zeramika horri esker badakigu milagarren urtearen inguruan leku horretan herrixka bat egon zitekeela».

Datu guzti horiek interes handia piztu zien ikerlariei. «Orain San Pedroburun belazeak eta pinudiak daude. Gipuzkoan ermi-



San Pedroburu muinoaren kokalekua. HITZA

tak izan diren lekuak auzoak dira gaur egun, baina San Pedroburu ez, eta hori berezia da», azaldu du Zehazteneko ikerlariak. «Horrek aukera ematen du nahi dugun indusketa mota egiteko. Bestetik, Gipuzkoan lehen aldia da garai batean herrixka bat zegoen lekuan egun ezer ez egotea».

## Elizaren horma

Iazko aurkikuntza horien ondoren, Zehazten erakundeak Bidegoiango Udalarekin harremanetan jarri ziren, aurtan leku hori egiteko asmoz. Hala, auzolanean garbiketak egin zituzten eta Gipuzkoako Foru Aldundia-aren laguntzaren bidez aztarnategia hobeto ezagutzeko aukera izan dute.

Aurtan, ikerlariaren helburua ermita aurkitzea izan da. Beste zundaketa bat egin dute, lubaki bat eginez. «Harri pilaketa batzuk topatu genituen, eta zabaltzen joan ginenean ikusi genuen horma bat zela», dio Etxezarragak. «Horma hori karerik edo morterorik erabili gabe eraiki zen, eta horrek esan nahi du nahiko antzinakoa izan daitekeela. Eta gainera, ikusita horma non dagoen eta hilibia non agertu zen, eliza zaharren horma izan daitekeela uste dugu».

Garai haietan elizaren kanpoina hilibiratzen zen, eta aurkitutako horma hori hilibiarekiko leku aproposan dago elizaren horma izateko, Etxezarragak gaineratu duenez. «Horrek itxaropen handia ematen digu, erakutsen digulako hor dagoen lur hori aberatsa dela, eta ondoren egin diren obretan ez dutela deuseztu. Datorren urtetan lan egiteko gogo handia sortarazten du».

Etxezarragak azaldu duenez, «nire interesa ez da bakarrik eliza edo herrixka hori ateratzea, parrokiak hori zergatik bihurtu zen ermita ere jakin nahi dugu. Hau

da, azkenean hor zegoen eliza horrek maila galtzen du, eta horren arrazoia azaltzen digun aztarnaren bat aurkitu nahi dugu».

Egin dituzten bi indusketa saioetan datu kurioso bat jaso dutela gaineratu du: «Hilobiaren ondoren atera ziren bi habe-zulo. Zulo horien gainean lurra gorrituta zegoen eta ikatzez betea zegoen. Aurtan aurkitu dugun hormaren kontra zegoen lur zati zabal bat ere gorrituta dago, eta ikatzez beteta. Horrek esan dezake noizbait eliza hori erre egin zela, eta baliteke eliza horrek bere maila galtzeko arrazoi bat hori izatea».

San Pedroburun zegoen eliza hori, egun leku horretatik gertu dagoen Elola bailaran dago, eta San Pedro izena du. Inguruan baserri batzuk daude eta bertako bizilagun batek ikerlariei azaldu zenez, San Pedroburuko eliza zaintzen zuen serora hil zenean, beste inor ez zegoenez, baserrietako ei esan zieten eliza zaintzeko. Hauek baiezkota eman omen zuten, baina eliza beraien baserri ondora leku aldatzen bazen. Etxezarragak azaldu duenez, bibliografia badago leku aldaketa hori jasotzen duena, eta XIX. mendearen erdialdean izan zen hori.

Erdi Aroan bizi zen jendeari buruz gauza askorik ez dakigula dio Etxezarragak, eta horregatik San Pedroburuko aztarnategiak izan dezakeen garrantzia. «Ez dakigu Bidania eta Goiatz nolakoak ziren Erdi Aroaren hasieran edo erdialdean», dio ikerlariek. «Indusketaren bidez datu gehiago lortu ditzahegu Gipuzkoako toki hauen historiaren inguruan».



**Bideoa.** Aztarnategiari buruzko bideoaren QR kodea.

**Mauka** GAURKO ESKAINTZA

**Kilo eta erdiko txuleta bat baino askoz gehiago!!**

**ELLAURI HOTELA**

Prezioa **54€**

[www.mauka.eu](http://www.mauka.eu) **berria**

# Morea: «Mondejoak ez du sekreturik»

Zaldibian bizi den Maria Luisa Morea amezketarrak zazpigaren aldis irabazi du Mondejo Lehiaketa

**Aimar Maiz** Amezketarra/Zaldibia

Etxeko korridoreko koadroen koadroan bost txapela ditu zintzilikatuta Maria Luisa Moreak, eta beste bi bilobei emanda dauzka. Zazpi txapela beltz, mondejo zuriaren egile estimatuena bihurtu dutenak. Azkeneko titulua igandean lortu zuen Zaldibian bizi den amezketarrak, Ardiki Egunaren baruan jokatu zen Zaldibiako 18. Mondejo Lehiaketa irabazita. Azken hiru urteotan jarraian jantzi diote txapela.

Kanporako ez du mondejorik egin ohi, «izugarrizko lana» dutelako. Baina, herrian urtean behingo lehiaketan Morea izan da nagusi, beste behin. Denera hamar sari ditu: zazpi lehenengo, bi bigarren eta hirugarren bat. Halako zerrenda lortzeko, mondejorari egin beharreko sekretuaz galdetutakoan, lehen ezustekoa: «Ez dago sekreturik batera».

Ohi bezala, Lazkaomendiko Maiz Goeneko Joxe Intxaustik ha-



Maria Luisa Morea, igandean lortu zuen zazpigaren txapela eskuan duela. A. MAIZ

zitikoa erabili dute Moreak eta familiakoek mondejoak egiteko; eta etxeko porruak eta arrautzak. «Tipularik batere ez diogu botatzen». Bezperan, larunbatean egin zituzten, etxean, senarraren, seme-alaben eta ofizioa ikas-tera arrimatu ziren iloben artean.

Txikituak garrantzi berezia duela aitortu du, kalitateko osagaiak erabiltzearekin batera. «Dena eskuz txikitzen dugu. Makinarik ez dugu inoiz erabiltzen, porruari min gustua eta ura gehiago ematen diolako. Eta egin aurreko momentuan txikitu be-

har dira osagaiak». Neurriak zehazterakoan, osagai garrantzitsuenak bai, baina besteak «begira» erabiltzen dituzte. Bigarren ezustekoa. «Irakin handirik ere ez du behar. Beroa termometrorik gabe kontrolatzen dugu. Gatz eta piper puntuak ere begira», dio

Moreak. Egileen artean probatzen joaten dira. «Iritzia denok ematen dugu, baina azkeneko erabakia Marilurena da», dio, albotik, Sebastian Iraola senarrak.

Mondejotan Mari Jose Alkaia ga geratu zen txapeldunorde, eta hirugarren Modesta Sukia eta Josune Etxeberria, elkarrekin.

## Aralarko gaztaren txapelketa

Ardiki horrez gain, Aralarko Gaztaren 15. Txapelketa ere burutu zen igande eguerdian Zaldibian. Irailean Legazpin Gipuzkoako txapela jantzi zuen Joseba Intxausti ordiziarrak irabazi du. Haren aitak jaso zuen saria. Bigarren Karlos Beloki bedaiorria izan zen, iazko irabazlea. Eta, hirugarren, Migel Amiano altzotarra.

Festa giroan garatu zen Ardiki Eguna. Artzaintza munduarekin lotutako lanek, produktuek eta jakingarriek jantzi zuten plaza ingurua. Bazkaritan hirurehun bat pertsona elkartu ziren, ardikia jateko.

Larunbatean, euskal artzain txakurren erakustaldia egin zuten Mugertzan, lehenengo aldis. Sei artzainek parte hartu zuten, beste horrenbeste zakurrekin, tartean Antonio Alustiza aresoarra eta Bat bere zakurra.

**Karlos Beloki** • Artzaina

## «Garai bateko modura hasi beharko dugu laster»

**I. Garcia Landa** Bedaio

Iazko irabazlea izan ostean, Zaldibiako Ardiki Egunean egiten den Aralarko Gaztaren Lehiaketan bigarren postua eskuratu du aurtan Karlos Beloki bedaiorria.

**Lehenengo postuetan izateko aukerak izusten zenuen?**

Esperantza banuen zerbait ateratzeko. Aurretik ere bigarren eta hirugarren sariak lortu ditut lehiaketa horretan.

**Beste lehiaketaren batera aurkeztu zara aurtan?**

Euskal Herriko txapelketan, Ordizian egiten dena, zazpigaren geratu ginen.

**Zer suposatzen du zuretzat sariak lortzea?**

Gaztak egiten jarraitzeko animoak ematen dizkizu. Zure lana saritzen dizute eta horrek jarraitzera animatzen zaitu. Salmentetan ere zerbait nabaritzen da saria jasotzen duzunean; jendeak pentsatzen du zerbaitengatik izango dela eta etortzen ez diren batzuk ere azaltzen dira.



HITZA

**Non saltzen duzu gazta?**

Gehiena etxean bertan, Ilorreta baserrian, gero harategietan eta dendetan ere bai.

**Bi gazta mota egiten dituzu, ezta?**

Bai, mendiko gazta esaten dena, Aralarko txabolaren egiten duguna da, eta bestea etxean egiten duguna. Orain behekoa zerbait gertatzen zaigu, baina gehiena salduta

dugu. Mendikoa, berriz, Lur Lanek hartzen digu. Mendikoa egiteko, maiatzaren 26an igo ginen eta bi hilabete pasa eman genituen txabolaren gaztak egiten. Orain horiek saltzen hasiko gara.

**Orain ardi guztiak behean dituzu?**

Bai, batzuk lehenago genituen jaitzita, eta gainontzekoak aste honetan jaitzi ditugu. Aste honetan hasiko gara gazta berria egiten, hori ere jendeak eskatzen duelako.

**Zein egoeretan dago artzaintza, egun?**

Lehenengo urtean pentsua garesti zegoen, eta aurtan hamabi pezeta gehiago garestitu dute kiloak. Ezinezkoa jartzen ari da. Hamar pezeta jasotzeko bederatzita gastatu beharra duzu... Nik uste dut, martxa honetan, laster hasi beharko dugula lehen garai batean ibiltzen zen bezala, hau da, Erregeetatik aurrera arkumeak eta kanpoan jana hasten den garaia aprobetxatuz, eta mendia ere bai. Ez badira gauzak aldatzen, ezinezkoa izango da.

Egin HITZAko harpidedun azaroaren 30a baino lehen

eta jaso Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra

**OPARI**



eta...

... HITZAren harpidedunen artean bi pertsonentzako harri bolkanikodun masaje geotermala (30') + jacuzzi sesioa zozkatuko dugu



**HYDRA**  
TUO ARTZAINA KONTRA

**hitza** info

harremanetarako:  
902 82 02 01  
harpidetza@hitza.info

## Errota zena ezagutuz hasiko dute Kultur Elejira, Baliarrainen

Bihar hasiko dituzte kultur ekitaldiak eta azaroaren 11ko erretiratuen egunarte luzatuko dira

**Rebeka Calvo** Baliarrain

Baliarraingo bizilagunek kultur ekitaldi ugari izango dituzte datoren asteetan, izan ere, Kultur Elejira hasiko dute bihar. 16:30ean dute hitzordua eta errota zenaren funtzionamendua ezagutzeko parada izango dute bideo baten bidez. Lanari esker herriko jendea errotara irina egitera nola joaten ziren eta taloak nola egiten zituzten ikusi ahal izango dute. Honekin batera, larunbatean umeek taloak egingo dituzte eta igandean gaztaina jatea egingo dute, bertsolariak lagunduta.

Kultur ekitaldietako azken bi egunak datorren astean izango dira, azaroaren 10ean eta 11n. Larunbatean *Gazta Zati Bat* eskainiko dute, Eskoziari buruz Jon Maia bertsolariak eginiko lana, hain zuzen. Azaroaren 11n berriz, erretiratuen eguna izango dute.

### ↓ Egitaraua

#### BIHAR, AZAROAK 2

■ **16:30.** Baliarraingo errota zenaren funtzionamenduari buruzko bideo emanaldia.

#### ETZI, AZAROAK 3

##### Haur eta gaztetxoaren eguna

■ **16:00.** Orendaingo errotara bisita.

Ondoren, errotan erositako arto irinarekin Harkaitz elkartean bildu eta afari merienda egingo dute, ume eta gazteek egindako taloekin.

#### ETZIDAMU, AZAROAK 4

##### Erretiratuen eguna eta gaztaina jatea

■ **12:30.** Meza nagusia.

■ **14:00.** Harkaitz elkartea eta udalak antolatutako gaztaina jatea erretiratuentzat eta herriko guztientzat, oro har. Bertso bazkaria izango da eta otorduan Sebastian Lizaso eta Jesus Mari Irazu bertsolariak izango dira.

#### AZAROAK 10, LARUNBATA

■ **21:00.** *Gazta Zati Bat* dokumetala ikusi ahal izango da, udaletxean.



#### AZAROAK 11, IGANDEA

##### Erretiratuen eguna

■ **11:00.** Meza nagusia.

■ **12:00.** Hamaiketako bana-tuko dute herriko erretirodun guztien artean.

■ **12:30.** Jakoba Rekondoren sosalaldia.

## Kirol ugari hartuko dute Tolosa, gaurtik aurrera

**R.C.** Tolosa

Askok jai egunak dituzte aurretik, eta egun aproposak dira inguruko kirol partida eta jarduerak ikusteko. Zehazki, eskubaloia, sas-

kibaloia, futbol eta areto futbol partidak izango dira igandea bitarte, tartean larunbat arratsaldeko Tolosa CFren eta Eibarren arteko partida, Euskadiko ligaren barruan.

### ↓ Partidak

#### GAUR

■ **Futbola.** Preferente mailako TolosaCF-Vasconia, Usabalen, 11:30ean.

#### BIHAR

■ **Areto futbola.** Gipuzkoako ligako 2. mailako Hirukide Plo-mix-Gorka Margoak, Eskoalpioetan, 18:15ean, eta Samaniego Orixe-Plaza Berri, Uzturpen, 20:45ean.

#### LARUNBATA

■ **Areto futbola.** Nazional 3 mailako Tolosala-Mallabia, Eskoalpioetan, 16:30ean.

■ **Saskibaloia.** Take lurre-Arrasate eta Take Montesku-Bergara, 09:00etan. Take Gorriti-Easo 97 eta Triki Urkizu-Zast, Usabalen. Take Belate-Hernani, 12:00etan, Usabalen. Take Ara-

lar-Bera Bera, 14:00etan. Eta Take Orbela-Alde Zaharra, 16:00etan. Partida guztiak Usabalen izango dira.

■ **Futbola.** Tolosa CF-Intxurre, 09:30ean; Tolosa CF-Urrieta, 11:00etan; Tolosa CF-Kostkas, 12:30ean; Tolosa CF-Mariño, 15:30ean; eta Tolosa CF-Eibar, 17:30ean. Partida guztiak Usabalen izango dira.

■ **Areto Futbola.** Nazional 3 mailako Laskorain-Soloarte, 18:00etan, Usabalen, eta Euskadiko ligako Tolosa CF-Eibar, 16:30ean, Berazubín.

#### IGANDEA

■ **Eskubaloia.** Kadeteen Tolosa-Ereintza partida, 10:00etan, eta 11:30ean talde berdinaren juniorren txanda izango da. Biak Usabalen izango dira.

## Bakoitza bere barruarekin lotzen ikasteko tailerra, Adunan

Asvinenea zentroko ikastaroaren lehen saioak hilaren 3 eta 4ean izango dira, goizez eta arratsaldez

**E. Maiz** Aduna

Adunan dagoen Asvinenea Arte Eszenikoen laborategiak, Zure barruarekin lotzeko interpretazio konektiboko izeneko ikastaroa eskainiko du, asteburuan. Lehen saioak larunbatean eta igandean izango dira, Elenka Atanasoff irakaslearen eskutik.

Asteburu honetako saioak lehen mailakoak izango dira, eta hilaren 24ean eta 25ean izango direnak, berriz, bigarren mailakoak. Ikastaroan, bakoitzak bere barnearekin lotzen ikasiko du, gero bat bateko antzezpenetan edota pertsonaia bat interpretatzerakoan erabili ahal izateko.

Era berean, sormen gaitasunetan aske izaten laguntzeko baliagarria izango da ikastaroa. Barneko eta kanpoko arreta erabiltzen ikasiko dute ikastaroan

izena eman dutenek. Interesa duenak izena emateko aukera du: 662 263 421 (Oihana) telefono zenbakira deituz edo [asvineneaeskola@gmail.com](mailto:asvineneaeskola@gmail.com) helbidera idatziz. Asteburu bakoitzeko 50 euro ordaindu beharko da.

Eskolak, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango dira eta Adunan bertan eskainiko dituzte.

#### Aire akrobazia ikastaroa

Atzo hasi ziren Aire akrobazia ikastaroa ematen, eta lehen saioa doan izan zuten. Oihala, trapezioa eta uztaia erabiltzen ikasteko aukera dago.

Gazteentzat eta helduentzat dira eskolak, eta antolatzaileek ez dela beharrezkoa ezer jakitea adierazi dute. Ohiko klaseak, asteazkenero izango dira 19:30etik 21:30era, urte osoan zehar.

Irakasleak, Eneritz Otegi eta Virginia Maffassanti izango dira. Informazio gehiagorako edota izena emateko 689 79 24 69 edo 605 41 08 80 telefono zenbakietara deitu behar da edo [asvineneaeskola@gmail.com](mailto:asvineneaeskola@gmail.com) helbidera idatziz. **•tolosaldean@hitza.info**



Aurten ere afari merienda egingo dute, haurrek eta gazteek egiten dituzten taloak janaz. N. URBIZU

## → Laburrak

### Tolosa&Co-ren gala 28 Kanal botako dute gaur

**TOLOSA** › Tolosa&Co merkatari elkarteak jakinarazi duenez, 28 Kanal gaur eskainiko du pasaden ostiral iluntzean Leidor aretoan egindako gala. Prestatutako ikuskizuna ikusi nahi duenak 16:00etan eta 22:00etan izango du aukera.

### Hilerrira joateko autobus zerbitzu berezia

**TOLOSA** › Santu Guztien eguna dela eta, hilerrira joateko autobus zerbitzu berezia dago gaur. Autobusak musika eskolatik aterako dira honako ordutegiarekin: 09:00, 09:45, 10:30, 11:15, 12:00, 12:45, 15:00, 15:45, 16:30, 17:15 eta 18:00. Hauek izango dira egingo dituen geldialdiak: Musika eskola, San Frantzisko eliza, Geltoki, Berazubi, lurreamendiko biribilgunea, kiroldegia, Amarotz eta hilerria.

### Pilota partida ugari, datozen egunetan

**ALEGIALDEA** › Bihar, 19:00etan, Alegian, Intxurre-Aurrera Saiaz2, Intxurre2-Lapke3, Intxurre1-Lapke4, eta Intxurre2-Aurrera Saiaz3 egongo da, eta 20:00etan (ordua ez dago zehaztuta), Bidegoianen, Aurrera Saiaz1-Intxurre4. Etzi 16:00etan (ordua ez dago itxita), Bidegoianen, Aurrera Saiaz1-Intxurre4, eta igandean (ordua zehaztu gabe) Bidegoianen, Aurrera Saiaz2-Intxurre.

# Ibarrako Udalak %50eko errenergua ezarriko die hutsik dauden etxebizitzetxei

Datorren urtean KPIaren araberako igoera izango dute udal tasek eta zergak; hondakinen zerga ez da igoko

**Iñigo Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udalak 2013 urterako zergak eta tasak zehazten dituen ordenantza onartu du. Horren arabera, Euskal Autonomia Erki-degoko eta Nafarroako irailaren 30eko Kontsumo Prezioen Indizea kontuan hartuz, %3,2 igoko dira zergak. Salbuespena hondakinen zerga izango da, horien zergak ez baitu igoerarik izango, beraz, 2012koa aplikatuko da. Horrela adostu zuten herenegun Ibarrako udaletxean egin zuten ezohiko batzarrean, Bilduren aldeko botoekin eta EAJren eta PSE-EE alderdien abstentzioarekin.

Beraz, KPIaren araberako igoera izango dute udal tasek eta zergak. Ondasun higiezin gainerako zergaren kasuan, etxebizitza hutsak badira, %50eko errenergua izango dute. Errekargu honetaz salbuesita egongo dira ondorengo egoeran dauden etxebizitzak: errentan emateko erakunde publiko baten esku jarritako etxebizitzak; ikasleei errentan emandakoak; zahar etxeetan erroldatuta dauden hirugarren adineko pertsonen etxebizitzak; arazoizko baldintza ekonomikoetan alokatzea edo saltzea eragozten duten inguruabarrak dituztenak; modu jarraituan lanbide nahiz merkataritza jardueretarako erabiltzen direnak; herentziaz jasotako etxebizitzak —urtebetez salbuesita—; alokatuta egon den etxebizitza berri ere alokatzeko dagoenean, baina urtarrilaren 1etik dagoena.

Kasu horiek, beraz, ez dira etxebizitza huts moduan izendatuak izango, eta ohiko zerga ordaindu beharko dute. Gainerako etxebizitzek, berriz, %50eko errenergua



Herenegun eginiko ezohiko bilkuran onartu zituzten datorren urteko udal zergak eta tasak. I. TERRADILLOS

## ↓ Datuak

### TASAK ETA ZERGAK

■ **KPIaren araberako igoera.** Udal tasek eta zergak KPIaren araberako igoera izango dute, hau da, 3,2koa. Salbuesita geratuko dira hondakinen zergak.  
■ **Etxebizitzak.** Etxebizitza hutsak dituztenen kasuan, ondare higiezin gainerako zergari

izango dute. Udaletik uste dute 200 etxebizitza huts inguru daudela herrian, eta zergaren igoera honekin diru asko lortuko ez den arren, jabeek etxebizitzak alokairu bideratzea bultzatuko duela espero dute.

**Udal etxebizitzak eta garajeak**  
Bestalde, zehaztuta geratu da Euskal Herria kaleko 20. zenbakian amaitze den eraikinean egin dituzten gazteei zuzendutako etxebizitza dotazionalen hileroko alokairuaren zenbatekoa. Hau esleitzen denaren diru sarre-  
ren arabera zehaztuko da. 150 eu-

%50eko errenergua egingo zaio.

■ **Gazteentzako etxebizitza dotazionalak.** Diru sarreraren arabera zehaztuko da alokairua: 15.000 euro baino gutxiago, 150 (gela bakarrek) eta 180 (bi gelakoak); 15.000-21.000: 200 eta 240 euro; 21.000-25.000: 250 eta 300

rotik 350 eurora bitarte izango da alokairua gela bakarrekotxeetan, eta bi geladunetan, 180 eurotik 420 eurora bitartekoa.

Garajea ere alokatu nahi dutenek 60 euro ordaindu beharko dute hilean. Prezio bera zehaztu du udalak Azkue auzoan dituen lau garajeetarako.

### TAO sistemaren tarifak

Aparkatzeko TAO sistemari dagokionez, 2013rako bertako TAO txartelagatik 20,64 euro ordaindu beharko da. 1 zonalderako 1,60 euro ordainduko da gehieneko 2 ordutako epean aparkatzeaga-

euro; 25.000-35.000: 300 eta 360 euro; eta 35.000 euro baino gehiagoko diru sarrerarekin 350 euro (gela bat) eta 420 euro (bi gela) ordainduko dute alokairua.

■ **Garajeak.** 60 euro hilean.  
■ **TAO.** Bertako txartela 20,64 euro. Ibarra lan egiten dutenentzat tarifa bereziak.

tik, eta 2 zonaldean ordubeteko gehieneko denboran autoa uzteagatik, berriz, 0,83 euro. 3 zonaldean aparkatzeagatik, berriz, goiza edo arratsaldeagatik 2 euro eta egun osoagatik 4 euro ordaindu beharko da. Bestalde, «izandako eskaera handia kontuan hartuta» Ibarrara lanera joaten direnentzat tarifa bereziak ezarri dituzte. 130 euro ordaindu beharko dute urtean, goizez ala arratsaldean aparkatzeagatik, eta 200 euro egun osoan aparkatzeagatik. Zuzenaz aparkatu ahaliko dute, eta soilik euren laneko ordutegian.

## → Laburrak

### Patinaje ikastaroa hasiko da datorren igandean

**BERASTEGI** ▶ Aurreko urteetan egin moduan, aurten ere patinaje ikastaroa antolatu du Berastegin, guraso elkarteak. Datorren igandean, azaroaren 11n hasiko da, eta Fermin Caminos izango da irakaslea. Bertan parte hartu nahi duenak ez du aurretik izena eman beharrik izango, nahikoa izango du egunean bertan azaltzearekin. Parte hartu ahal izateko, 2 euro ordaindu beharko da eskola egun bakoitzeko. Irakasleari eskura ordainduta egin beharko da.

### Berrobiko frontenis txapelketan izen ematea

**BERROBI** ▶ Begi Gorri gaztetxeak antolatuta, abian da Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketa. 21. urtea du aurten, eta berrikuntza bezala, talde mixtoek ere parte hartu ahaliko dute. Frontenis txapelketan parte hartu nahi duenak azaroaren 6a izango du izena emateko azken eguna. Berrobiko Iturriza jantzi denda eta Iriarte jate-txean eta Tolosako Aralar kirolak denda egin ahaliko da, eta parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu. Azaroaren 8an zozketa egingo dute Etxola aretoan, 21:00etan, eta azaroaren 17an hasiera emango diote txapelketari.

### Aresoko Udalak argazki lehiaketa jarri du martxan

**ARESO** ▶ Argazki lehiaketa antolatu du Aresoko Udalak. Edonork parte hartu ahaliko du, eta azaroaren 26a baino lehen bidali behar dira argazkiak udaletxera, [aresokoudala@ibercom.com](mailto:aresokoudala@ibercom.com) helbidera. Argazkiak Aresoko ondare naturalari, ondare arkitektoniko edo historikoari eta paisaiei egindakoak beharko dute izan. Sariak egongo dira, eta baita zozketak ere parte hartzaile guztien artean.

## ◉ Hilberriak eta urteurrenak

# ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



## JEXUXA ODRIEZOLA MENDIZABAL

(Manuel Elizagirren alarguna)

Urriaren 30ean hil zen, 87 urte zituela.

- Goian bego -

Agur amona maitea

nahiz eta gaur agur esan behar

beti barren-barrenean

gurekin izango zara

Zure bilobak: Ander eta Hilda, Elixabet eta Sidi, Beñat eta Iraia, Amaiur eta Dani, Iñigo, Ibai; birbiloba: Maddi

Tolosan, 2012ko azaroaren 1ean



16°  
8°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATSALDEA LAUNTUTA  
BEROENA 19°  
HOTZENA 13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibaralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# Sexu eta ugalketa eskubideen urraketa salatzen, erakusketa

'Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak' erakusketa etzi arte dago ikusgai, Aranburu jauregian

Eneritz Maiz Tolosa

Medicusmundi Gipuzkoa eta Tolosa elkartu egin dira munduan sexu eta ugalketa eskubideen urraketa salatzen. *Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak* erakusketa ibiltaria Aranburu jauregian dago urriaren erditik, eta etziko izango du azken eguna, Tolosan. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan dute.

Peruko Manuela Ramos Mugimenduen laguntza eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuta prestatu da erakusketa. Sexu eta ugalketa eskubideek munduan duten egoeraz gipuzkoar biztanleak sentsibilizatzea du helburu erakusketak, eta emakumea da protagonista. Herrialdeen garapenerako eta generoen arteko berdintasuna lortzeko, emakumeek eskubide horiek bermatuta izatea eta erabili ahal izatea funtsezko elementutzat hartzen dira.

Hamaika panelen bitartez, sexu eta ugalketa eskubideak zer diren azaltzen ahalegintzen da erakusketa, eta horietako batzuetara gerturatu egiten da: bortizkeriarik gabeko bizitza izateko eskubidea; segurtasun fisiko eta mentalaren eskubidea; sexual-



Aranburun informazio asko eskuratuta daiteke, erakusketari esker. E. MAIZ

tate osoa eta arriskurik gabekoa izateko eskubidea; edota amatasun gogozko, libre eta osasuntsua izateko eskubidea.

Era berean, eskubide hauek erabili ahal izateko dauden oztopoak azaltzen ditu ekimen honek. Sexu eta ugalketa osasunerako aukerarik eza, osasun publikoko arazo garrantzitsuak da, herrialde txirotuetan, batez ere. 530.000 emakume inguru hiltzen dira munduan amatasunarekin erlazioz gertatutako arazoengatik (%13 baldintza txarretan egindako abortuengatik), eta Nazio Batuen Biztanleria Funtsekin dioenez, munduan sufitzen diren gaixotasunen zama globalaren %18ak

sexu eta ugalketa osasunari lotutako arazoekin zerkusia du.

Munduko herrialde askotan emakumeek ez daukate beren gorputzaren gaineko kontrolirik, ez eta beren sexu harremanen, ezkontza eta seme-alaba kopuruaren inguruan ere. Horrek haundunaldi eta hazkuntza garaiek beren bizitzaren zatirik handiena hartzea dakar, eta, ondorioz, murriztuta daukate ikasketak hasi edo osatzeko, lanpostu bat lortzeko edo beste espazio publikoetan parte hartzeko aukera.

Herrialdeen garapenerako eta generoen arteko berdintasunerako funtsezko elementuak dira horiek guztiak.

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Abaltzisketa.** Azaroaren 4ean mendi irteera egingo dute Larraitetik Igaratzara. Bazkaria ere egingo dute, Abaltzisketako frontoian. 10 euro ordaindu behar harko da, eta izena emateko deitu 646 28 42 42 (Jon) edo 676 929 660 (Juan Mari) deituz eman behar da.
- **Orexa.** Gaur 11:00etan, herrian bertan dituzten Narbaitzuko kobetara egingo dute irteera orexarek. Ondoren, afari merienda egingo dute.

### ERAKUSKETAK

- **Orexa.** Kultur Hamabostaldia irauten duen bitartean *Mundu batetik* erakusketa ikusi ahal da, udaletxeko ganbaran.
- **Tolosa.** Tolosako Aranburu jauregian Box.A elkarrean *Pornografia* erakusketa azaroaren 9a bitartean, eta Medicusmundi Gipuzkoak antolatutako *Sexu eta ugalketa eskubideak, eskubiderik gizatiarrenak* erakusketa ikusi ahal da azaroaren 3a arte.
- **Larraul.** Koldo Jauregik bere aho soinuen bilduma jarri du ikusgai urte bukaera bitarte mu-

seo etnografikoan. Era berean, Kultur Hamabostaldia bukatu bitarte Karleme Pellejeroren pinturak ikusi ahal dira herriko ostatuan.

- **Tolosa.** Mariona Masgrauren lanak biltzen dituen *Bidaia bat txotxongiolen mundura* erakusketa ikusi daiteke Topic zentroan.

### MUSIKA

- **44. Abesbatza Lehiaketa.** Gaur 11:30ean emango zaio hasiera, Santa Klara elizan. 16:00etan eta 19:30ean, Leidor antzokian izango dira saioak.

## Farmaziak

### GAUR

- **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria Kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Campos M. Z. Elbarren 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien etairitzien erantzukizunik.

## Agurrak

AGURRAK  
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●●● agurrak

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Hitzaren harpidedunentzat

30 €

Udazken honetan  
janntzi HITZArekin!

- Kirola egiteko aproposa den txalekoa
- Barrukaldean fibra mikropolarra
- Paseatzeko aproposa

Egin eskaria:

Telefonoz: 943 65 56 95

edo gerturatu HITZAren Tolosako egoitzara: Araba etorbidea 5, behea

